

III. TITULUA

DIRU SARREREN EGOERA ORRIA

I. KAPITULUA

FORU ALDUNDIEN EKARPENAK

27. artikulua.– Foru-aldundien ekarpenak.

2014ko ekitaldian zehar, foru-aldundiek Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuan izendatutako kredituei eusteko egin beharreko ekarpenak 8.279.986.672 eurokoak izango dira, martxoaren 23ko 2/2007 Legearen bidez onartutako metodologiarekin bat etorriz.

28. artikulua.– Ekarpen-koefizienteak.

Aurreko artikuluan zehaztatutako zenbatekoari ondoko ehunekoak ezarriz ateratzen da lurralde historiko bakoitzak egin beharreko ekarpena. Hona ehunekook:

Araba: % 16,00

Bizkaia: % 50,94

Gipuzkoa: % 33,06

II. KAPITULUA

ZERGA IZAERAKO ARAUAK

29. artikulua.– Tasak.

Oinarriaren ehuneko jakin bat finkatuta ez izateagatik edo oinarria moneta-unitateetan emana ez egoteagatik finakoak diren Euskadiko Ogasun Nagusiaren tasak igo egingo dira: 2013. urtean eskatzen ziren zenbatekoei, hain zuzen ere, bat koma zero bi (1,02) koefizientea aplikatuz ondo-rioztatzen den kopururaino.

Aurreko paragrafoan aurreikusitakotik salbuesten dira lege honetan berariaz eguneratzen diren tasak, bai eta 2013an onetsitako arauen bidez sortu diren tasak edo berariaz eguneratu direnak ere.

Lehen aipatutako koefizientea aplikatu ondoren, bi hamartarreko tasak txikiagora biribilduko dira hirugarren hamartarra bostetik beherakoa bada, eta handiagora osterantzean.

Lau edo sei hamartarreko tasen kasuan, txikiagora biribilduko dira bosgarren edo zazpigarren hamartarra, hurrenez hurren, bost baino txikiagoa bada; bestela, handiagora biribilduko dira.

IV. TITULUA

KONTRATATZEKO ETA GASTUA BAIMENTZEKO ARAUAK

30. artikulua.– Gastua baimentzeko arauak.

1.– Egitekoa den gastuari dagokion kredituaren izaera edozein izanik ere, 5.000.000 eurotik gorako gastuek Gobernu Kontseiluaren baimena beharko dute. Bada salbuespen bat, alegia,

ere, Gizarte Segurantzaren erregimen orokorrean sartutako funtzionarioen nahitaezko erretirako adina, betiere, erregimen hori arautzen duten arauak erretiro-pentsioa eskuratzeko aurreikusten dutena izango da adinagatik koefiziente murriztailerik ez duen kotizaziopeko modalitatean.

2.– Etena mantendu egiten da, 2014ko ekitaldian zehar, Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 38. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadan jasotzen den aurreikuspenaren arabera, zerbitzu aktiboan luzapena eskatzeari buruzko aplikazioarena.

Hala ere, eragindako langileak, 65 urte betetzen dituenean, gizarte-aurreikuspeneko erregimen bakoitza arautzen duten arauekin bat etorrira, ez baditu egiaztatzen egoera bakoitzari dagokion erretiro-pentsioa osoa sortzeko beharrezko diren zerbitzu- edo kotizazio-urteak, zerbitzu aktiboan irautea eskatu ahal izango dio haren erretiroa erabakitzeko eskumena duen organoari. Dena den, ezingo da inolaz ere zerbitzu aktiboa luzatu 70 urteetatik gora, baldin eta interesduna zerbitzurako gai dela onartua izan bada.

Nolanahi ere, zerbitzu aktiboan egoteko luzapenak Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren nahi-taezko txostena beharko du, baimen berezia eman baino lehen.

Bederatzigarrena.– Euskal administrazio publikoetako enplegatuen prestakuntzarako kredituen kudeaketa.

Euskal administrazio publikoetako enplegatuen enplegu-prestakuntzarako kredituak, IVAP era-kunde autonomoaren aurrekontuetan agertzen direnak, erakunde horrek kudeatuko ditu, kasuan kasuko deialdien bidez.

Hamargarrena.– Aldi baterako ezintasunari buruzko ordainsari-osagarriak arautzea.

Aurreikusitako etena mantendu egiten da, Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legearen 19.11 artikuluko azken lerrokadan jasotzen den moduan. Era beran, aldi baterako ezintasunari buruzko ordainsari-osagarrien erregulazioa mantentzen da, gastu publikoa murrizteko neurriak aplikatzeari buruzko urtarrilaren 31ko 9/2012 Dekretuan aurreikusitakoaren arabera. Erregulazio horrek Euskal Autonomia Erkidegoko 2012. urteko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea garatzen du. Nolanahi ere, Gobernuak gaiaren gaineko arautze berria egin ahal izango du, Ogasun eta Finan-tza, eta Herri Administrazioa eta Justizia sailek proposatuta.

XEDAPEN INDARGABETZAILEAK

Lehenengoa.– Indargabeturik geratzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen lehenengo xedapen gehigarria.

Bigarrena.– Indargabeturik geratzen da martxoaren 1eko 6/2012 Legearen azken xedapenetako lehenengoa; lege horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren gehiengoko par-taidetza edo finantziarioa daukaten erakundeak arautze aldera, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen testu bategina, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legea eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiaren Legea aldatzen dira.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen aldaketa.

1.– Idazketa berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabi-litateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 6. artikuluari, eta honela idatzita geratuko da:

«1.– Titulu honen ondorioetarako, hauek dira Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publiko osatzen dutenak: Eusko Legebiltzarra, Administrazio orokorra, Administrazio instituzionala, azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako testu bateginaren arabera Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen 7. artikuluko 4. paragrafoko a), b) eta c) idatz-zatietan adierazitako erakundeak, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren mendeko aurrekontuak dituzten gainerako erakunde guztiak.

2.– Kontabilitate publikoaren erregimenari atxikirik egongo dira Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, erakunde autonomoak eta sektore publikoko partzuergoak. Erakunde horiek Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontabilitate Publikoko Planean, plan horren garapeneko arauetan eta aplikazioak diren gainerako arauetan jasotako kontabilitate-printzipio eta -arauak aplikatuko dituzte.

3.– Enpresa-kontabilitatearen erregimenari atxikirik egongo dira zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, sozietate publikoak eta sektore publikoko fundazioak. Erakunde horiek kontabilitatearen inguruko merkataritza-arauetan eta, bereziki, Kontabilitate Plan Orokorrean eta plan horren garapenerako arauetan jasotako kontabilitate-printzipio eta -arauak aplikatuko dituzte.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren barruan dauden sektore publikoko gainerako erakundeak, artikuluko honetako 1. paragrafoan ezartzen den erara, kontabilitate publikoaren erregimenaren menpe edo enpresa-kontabilitatearen erregimenaren menpe egongo dira, zein den ere haien lehentasunezko araubidea, hurrenez hurren, zuzenbide publikoa edo zuzenbide pribatua, salbu eta erakunde horien sorrerako arauetan sistema bereziren bat ezartzen bada».

2.– Idazketa berria ematen zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legearen 17. artikuluko 1. paragrafoari, eta honela idatzita geratuko da:

«1.– Kontrol ekonomiko-finantzarioak eta kudeaketakoak xedetzat izango du:

a) Egiaztatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoaren kudeaketa ekonomiko-finantzarioa bat datorrela hura osatzen duten erakunde, organo, zerbitzu eta unitateen jokabide ekonomiko-finantzarioa arautzen duten xedapen eta jarraibideekin eta hura zuzentzen duten erreglartasun-, legezketasun-, eraginkortasun- efizientzia- eta ekonomia-printzipioekin.

b) Begiztatzea kontrolatutako organo eta erakundeen kontabilitateak eta informazio ekonomiko-finantzarioak egiazki islatzen dutela haien finantza-, ondare- eta aurrekontu-egoera, eta bat datozela aplikagarriak diren xedapen eta printzipioekin.

Kontrol ekonomiko-finantzarioko eta kudeaketako kontroleko txostenek kontrolatzen diren erakundeen kudeaketa hobetzeko beharrezko diren gomendioak erantsiko dituzte».

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategina aldatzea; testu hori irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen.

1.– 95. nonies bis artikuluko berri bat gehitzen zaio testu bategin berari, Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ikasketa egiaztagiria eta baliozkotzeak egiteagatik ordaindu beharreko tasaren salbuespenei buruzkoa, eta honela geldituko da idatzita:

«95. nonies bis artikulua.– Salbuespenak.

Salbuetsita egongo da Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiak ikasketa-egiaztagiria eta haien kopiak, homologazioak, baliozkotzeak eta aitorpenak eta orobat kopia kautoak edo kautotzuak eta aipatutako dokumentuen konpultsa egiteko beharrezkoak diren zerbitzuak ematea,

betiere honako jarduera hauek eragindakoa bada: Polizia eta Larrialdietako Euskal Akademiaren Zuzendaritza Kontseiluak onartutako jardueren urteko planaren barruan egotea, eta Ertzaintzako langileei, Udaltzaingoetako kideei, Euskal Foru eta Toki Administrazioetako larrialdietako zerbitzuetako langileei eta larrialdiei aurre egiteko euskal sisteman dauden Euskadiko boluntarioen erakundeetako langileei emandako jarduerak izatea».

2.– Aldatu egiten da testu bategin beraren 111. sexies artikulua, bilaketa-, erreskate- edo salbamendu-zerbitzuengatik tasaren salbuespenei dagokiena, eta honela idatzita geldituko da:

«111. sexies artikulua.– Salbuespenak eta hobariak.

1.– Subjektu pasiboek kuotaren % 80ko hobaria izango dute.

2.– Tasa hau ordaintzetik salbuetsita egongo dira subjektu pasibo hauek:

a) Edozein eratako anomalia, urritasun edo asaldura psikikoa dutenak.

b) 16 urtez azpikoak.

c) Erreskatean edo aurreko fasean hildakoak, edo ondorengo fase batean hildakoak baldin eta bilaketa, erreskatea edo salbamendua eragin zuten arrazoiengatik hil badira.

3.– 111. ter artikulua 2. eta 3. paragrafoetan aipatzen diren zergapekoei ez zaie inolako salbuespenik ezta hobaririk ere aplikatuko».

3.– Aldatu egiten da, testu bategin berean, EBren etiketa ekologikoa emateagatik tasa arautzen duen IX. tituluko I. kapituluaren edukia, eta honela idatzita geldituko da:

«188. artikulua.– Zergapeko egitatea.

Tasa honen zergapeko egitatea da EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabidea izapidetzeko behar diren zerbitzuak ematea.

189. artikulua.– Subjektu pasiboa.

EBren etiketa ekologikoa eskatzen duten pertsona fisikoak edo juridikoak dira tasa honen subjektu pasiboak.

190. artikulua.– Noiz sortzen den tasa ordaintzeko betebeharra.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko zerbitzuak ematen diren unean sortuko da tasa ordaintzeko betebeharra. Halere, eskabidea egiten den unean eskatuko da tasaren ordainketa.

191. artikulua.– Kuota.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabide bakoitzeko, 315,18 euroko kuota ordaintzeko eskatuko da.

Enpresa txiki eta ertainen eta mikroenpresen kasuan (Batzordearen 2003ko maiatzaren 6ko 2003/361/EE Gomendioaren arabera definituta) eta garapen-bidean dauden herrialdeetako operadoreen kasuan, 206,00 eurokoa izango da kuota.

191. bis artikulua.– Hobariak.

Kuotaren % 30eko hobaria aplikatuko zaie eskatzaileei baldin eta egiaztatzen badute izena emanda daudela EMAS Europar Batasuneko ingurumen-kudeaketa eta -ikuskaritza sisteman edo

% 15ekoa badutela ISO 14001 arauarekin bat datorren ziurtagiria. Hobariak ez dira metatzen. Bi sistemak betetzen direnean ezarriko da soilik hobaririk altuena.

Beharpen hori lortzeko, eskatzaileak berariaz hitzeman behar du bermatuko duela etiketa ekologikoa duten beraren produktuek erabat betetzen dituztela EBren etiketa ekologikoaren irizpideak kontratua baliozkoa den aldian, eta konpromiso hori modu egokian sartzen dela zehaztutako ingurumen-helburuetan.

191. ter artikulua.– Autolikidazioa.

EBren etiketa ekologikoa eman, aldatu, luzatu eta berritzeko eskabideagatik kuota eskabide hori entregatzeko unean autolikidatuko dute subjektu pasiboek».

4.– Aldatu egiten da, testu bategin berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatikotasen kuota arautzen duen 196. artikuluko 5.2 paragrafoaren edukia, eta honela idatzita geldituko da:

«5.2.– Zerbitzuek urteko 365 egunetako 24 orduetan administrazio-, marinel-tza- eta/edo zaintza-prestazioak hartzen dituztenean, tasaren kuotak honako hauek izango dira:

MODALITATEA MODALIDAD	euro/m ² -ko eta eguneko Euros/m ² y día
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinalerik gabe edo ainguran jartzeko tresneriarik gabe <i>Sin muerto ni tren de fondeo de la Administración</i>	0,062144
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinale edo ainguran jartzeko tresneria eta guzti <i>Con muerto o tren de fondeo de la Administración</i>	0,124290
Kaietan lotuta <i>Atracados a muelles</i>	0,149147
Pantalanetan lotuta: <i>Atracados a pantalanes:</i>	
Urtebete osoa edo urtebete baino gehiago kontratatzea <i>Contratación por año completo o más</i>	0,186436
Urtebete baino gutxiagorako kontratua: <i>Contratación por periodos inferiores al año:</i>	
– goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera) – <i>temporada alta (más de 30 días entre mayo y septiembre)</i>	0,292429
– behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera) – <i>temporada baja (más de 30 días entre octubre y abril)</i>	0,217896
Iragaitzazko itsasontzietarako atrakalekuak: <i>Atraques destinados a embarcaciones en tránsito:</i>	
– uztaila eta abuztua – <i>julio y agosto</i>	0,6270
– apirila, maiatza, ekaina eta iraila – <i>abril, mayo, junio y septiembre</i>	0,4682
– urria, azaroa, abendua, urtarrila eta martxo – <i>octubre, noviembre, diciembre, enero y marzo</i>	0,3090

Zerbitzuek 24 ordu baino gutxiagoko txandetako administrazio-, marineltza- eta/edo zaintza-prestazioak hartzen dituztenean, egunero jaiegunetan izan ezik, tasaren kuotak honako hauek izango dira:

MODALITATEA MODALIDAD	euro/m ² -ko eta eguneko Euros/m ² y día
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinalerik gabe edo ainguran jartzeko tresneriarik gabe <i>Sin muerto ni tren de fondeo de la Administración</i>	0,048544
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinale edo ainguran jartzeko tresneria eta guzti <i>Con muerto o tren de fondeo de la Administración</i>	0,097089
Kaietan lotuta <i>Atracados a muelles</i>	0,116505
Pantalanetan lotuta: <i>Atracados a pantalanes:</i>	
Urtebete osoa edo urtebete baino gehiago kontratatzea <i>Contratación por año completo o más</i>	0,142780
Urtebete baino gutxiagorako kontratua: <i>Contratación por periodos inferiores al año:</i>	
– goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera) – <i>temporada alta (más de 30 días entre mayo y septiembre)</i>	0,228431
– behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera) – <i>temporada baja (más de 30 días entre octubre y abril)</i>	0,170209
Iragaitzazko itsasontzietarako atrakalekuak: <i>Atraques destinados a embarcaciones en tránsito:</i>	
– uztaila eta abuztua – <i>julio y agosto</i>	0,6270
– apirila, maiatza, ekaina eta iraila – <i>abril, mayo, junio y septiembre</i>	0,4682
– urria, azaroa, abendua, urtarrila eta martxoa – <i>octubre, noviembre, diciembre, enero y marzo</i>	0,3090

Zerbitzuek 24 ordu baino gutxiagoko txandetako administrazio-, marineltza- eta/edo zaintza-presazioak hartzen dituztenean, astean bitan, uztailean eta abuztuan izan ezik (hilabete hauetan asteko egun guztietan emango dituzte zerbitzu hauek), tasaren kuotak honako hauek izango dira:

MODALITATEA MODALIDAD	euro/m ² -ko eta eguneko Euros/m ² y día
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinalerik gabe edo ainguran jartzeko tresneriarik gabe <i>Sin muerto ni tren de fondeo de la Administración</i>	0,045433
Administrazioaren ilabe edo ainguratze-seinale edo ainguran jartzeko tresneria eta guzti <i>Con muerto o tren de fondeo de la Administración</i>	0,090865
Kaietan lotuta <i>Atracados a muelles</i>	0,109037
Pantalanetan lotuta: <i>Atracados a pantalanes:</i>	
Urtebete osoa edo urtebete baino gehiago kontratatzea <i>Contratación por año completo o más</i>	0,133628
Urtebete baino gutxiagorako kontratua: <i>Contratación por periodos inferiores al año:</i>	
– goi-denboraldia (30 egun baino gehiago maiatzetik irailera) – <i>temporada alta (más de 30 días entre mayo y septiembre)</i>	0,228431
– behe-denboraldia (30 egun baino gehiago urritik apirilera) – <i>temporada baja (más de 30 días entre octubre y abril)</i>	0,170209
Iragaitzako itsasontzietarako atrakalekuak: <i>Atraques destinados a embarcaciones en tránsito:</i>	
– uztaila eta abuztua – <i>julio y agosto</i>	0,6270
– apirila, maiatza, ekaina eta iraila – <i>abril, mayo, junio y septiembre</i>	0,4682
– urria, azaroa, abendua, urtarrila eta martxoa – <i>octubre, noviembre, diciembre, enero y marzo</i>	0,3090

Nolanahi ere, iragaitzaz dauden itsasontzietarako atrakalekuetako gutxieneko kuota eguneko 10,00 eurokoa izango da».

5.– Aldatu egiten da, testu bategin berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatik tasen kuota arautzen duen 196. artikuluko 8. paragrafoaren edukia, eta honela idatzita geldituko da:

«8.– T-8 tarifaren zenbatekoa kalkulatzeko, hornitutako unitateak biderkatu egin behar dira unitatearen kostuaren prezioarekin, eta emaitzari % 50 gehitu behar zaio.

Baldin eta uretik eta energia elektrikitik hornitutako unitate-kopurua zehazteko kontagailurik ez badago, kasu horretan honela zehaztuko da kuota: metro koadroko egunean 0,01 euroren zenbatekoa itsasontziaren gehieneko luzera gehieneko zabalera zati batearen ondoriozko gainazalari aplikatuz».

6.– Aldatu egiten da, testu bategin berean, Euskal Autonomia Erkidegoaren titulartasuneko portuetako zerbitzu orokor eta bereziengatiko tasen kuota arautzen duen 196. artikuluko 9.2 paragrafoaren edukia, eta honela idatzita geldituko da:

«9.2.– Aparkamendua.

Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenekoak diren portuetan, ibilgailuen aparkamendua antolatuta eta araututa badago, zenbateko hauek ordainduko dira:

Portuaren eragin-esparruan bizi direnek (portu arloan eskumena duen zuzendaritzak ezarritako eragin-esparruan, alegia): 20,60 euro urtean.

Donostiako portuan tasa hau 60,61 euro urteko izango da.

Mugatutako eremuak dituzten portuetan:

Automobilek: 0,87 euro orduko.

Kamioiek: 1,13 euro orduko.

Gainerako kasuetan: 3,41 euro eguneko edo zatikiko.

Kirol-kaietako aparkatzeko eremuetan, baldin eta amarratze-lekua dutenek aparkatzeko lehen-tasuna badute, aparkatzeagatik kobratu beharreko tasak honako hauek izango dira:

Donostiako, Getariako, Bermeoko eta Mutrikuko portuetan: 60,20 euro urtean.

Hondarribiko eta Orioko portuetan: 85,00 euro urtean.

Portura sartzeko txartela egiteagatik edo, galdu edo hondatuz gero, berria egiteagatik:

36,79 euro txartela magnetikoa bada.

6,68 euro txartela magnetikoa ez bada.

Portuko eremuan gaizki aparkatuta dauden automobilak kentzeagatik: 51,18 euro».

Hirugarrena.– Garapena eta gauzatzea.

1.– Jaurlaritzari baimena ematen zaio lege honen garapenerako beharrezkoak diren xedapenak emateko. Ogasun eta Finantza sailburuari dagokio xedapenok proposatzea.

2.– Erakunde autonomoen, zuzenbide pribatuko erakunde publikoen eta sozietate publikoen eremuan, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoaren sektore publikoko fundazio eta partzuergoen eremuan ere, bakoitzaren gobernu-organoari egokituko zaio honako lege honen 19. artikuluan eta ondorengoetan eta orobat lege honen garapenerako arauetan jasotzen diren neurriak aplikatzea.

3.– Jaurlaritzari baimena ematen zaio, lau hilabete baino gutxiagoko epean lege hau indarrean sartzen denetik, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko ekainaren 30eko 14/1994 Legea testu bakar batean batzeko, bai eta ondorengo beste lege batzuek eragin dizkioten aldaketak batzeko ere. Testu bategina honetara mugatuko da: legeak testu bakar batean biltzera, eta artikulua, kapituluak eta xedapenak behar den neurrian berriro zenbakitzera, bai eta testu bakarrean bildu beharreko legeen barne-bidalketak zenbakera berrira egokitzea ere.

Laugarrena.– Indarrean sartzea

Lege hau 2014ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean.